

**KULTUR BILGUNEAREN 13. BILERA****BERTARATUAK:**

KULTURA TEKNIKARIA	LESAKAKO ABESBATZA
ARRANO ELKARTEA	LESAKAKO MUSIKA ESKOLA
LESAKAKO EUSKARA BATZORDEA	IRAIN GURASO ELKARTEA
OTXOGORRIENEA GURASO ELKARTEA	TXISTULARI TALDEA
BORTZIRIETAKO BERTSO ESKOLA	TANTIRUMAIRU EUSKAL FOLKLORE TALDEA
SAN FERMIN JUBILATUEN ELKARTEA	LESAKAKO SOINULARIAK
MAIRU ANTZERKI TAILERRA	GEROA BAI UDAL TALDEA
GILTZARRI ABESBATZA	EH BILDU UDAL TALDEA

1. Aitzineko aktaren onarpena egin da.
2. Harriondoaren erabilera: Covid 19aren ondorioz egoera berria. Urrian martxan jartzeko, legea betez, Harriondoaren erabilera adostea du helburu Udalak. Irailaren 1ean, Harriondoa erabiltzen duten taldeekin bilera egin zen eta bertan solasturikoa azadu da. Orain, talde bakoitzak, bere beharren arabera eskaera egin beharra du. Harriondoako sarreraren inguruan solastu gara, sartzte-irteerak nola bideratu pentsatzeko; aforoa zehaztea, ate ezberdinak erabiltzea... Irailaren 21-27ko astean honen inguruko bilera bat egingen da.
3. Udako zikloaren balorazioa: Txamukosen emanaldia bertan behera gelditu da eta *Matriuska* egunez aldatu behar izan zen. Hausnarketa eta balorazioa urriko bileran egingen dugu.  
Falta diren ekitaldien inguruan, Kantu saioa eta Erraldioen kajerira ez egitea erabaki dute taldeek. Osasun egoera zein den ikusita, ez egitea erabaki dute. Irailaren 12an, Erraldoiak aterako ez diren arren, Gaitariak kalejira egingen dute.  
Zikloaren itxierari dagokionez, (irailak 19), Musika Bandak eta soinulariek abisatu dute beraiek ez dutela deus egingen. Bertso Eskolak ere erran du ez dutela deus prestatuko, Udako zikloan bertsoak izan direla eta nahikoa dela iritziz. Txistulariak zerbait prestatzen ari dira, baina egin edo ez aitzinago erabakiko dute.

4. Eskaerak eta galderak:

-Emanaldietan Txokobikoko neurriak, distantziak...birplanteatzerik ote dagon galdetu da. 2 eserleku beharrea 1 bakarrik libre uztea erraterako. Kontsulta eginen dugu.

-2020-2021erako Bilgunearen egutegia zehaztu dugu:

**Urriak 17, azaroak 7, abenduak 12, urtarrilak 16, otsailak 6, martxoak 6, apirilak 17, maiatzak 8 eta ekainak 5.** Goizeko 9:30tan eginen ditugu bilerak.

-Diru-laguntza eskaerak iaz baino lehenxeago egitea proposatu da. Hurrengo bileran zehaztuko dugu zein hilabetetan egin beharko diren aipatu eskaerak.

Hurrengo bilera 2020ko urriaren 7an, eginen dugu.